



Espediente zk./Nº Expediente: 2018SZUZ0008 Erreg. data/Fecha Reg:2017-12-11

Erreg. zk. / Nº Registro: 15226

Gaia/Asunto: Iraultza Dantza taldea: hitzarmena 2018

Eskatzailea/Solicitante: Iraultza Dantza Taldea

Kokalekua/Emplazamiento: ERRENERIA

Errenteriako Udala

Ayuntamiento de Errenteria

Egun honetako Alkatezaren Aprobado por Resolución de Alcaldía en esta fecha.

Zkia./ Número 1179 Data / Fecha 2018/05/03

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

**ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOARI
DAGOKION HITZARMENA**

**CONVENIO RELATIVO A CONCESIÓN DE
SUBVENCIÓN DIRECTA NOMINATIVA**

Errenterian, 2018ko maiatzaren 3an

En Errenteria, 3 de mayo de 2018

BILDU DIRA:

REUNIDOS:

Batetik, Ion Collar Rioseco, Errenteriako Udaleko Kultura Saileko Zinegotzi Ordezkarri gisa.

De una parte, D. Ion Collar Rioseco, en calidad de Concejal Delegado del Área de Cultura del Ayuntamiento de Errenteria.

Bestetik, Ramon Garcia Zabalegui, NAN: 72.428.818-R duena, eta helbidea: Biteri Kalea 20, 2. A, 20.100 Errenteria.

De otra parte, D. Ramón García Zabalegui, con D.N.I. nº 72.428.818-R y domicilio en C/ Viteri 20, 2º A, 20.100 Errenteria.

PARTE HARTZEN DUTE:

INTERVIENEN:

Lehenengoak, Errenteriako Udalaren izenean, Alkateak eginiko eskuordetzeari jarraiki, 2015eko ekainaren 19an eta 2016ko otsailaren 19an, 601 eta 170 zk.ko Dekretu bidez.

El primero, en representación del Ayuntamiento de Errenteria, en virtud de delegación efectuada por el Alcalde, mediante Decretos nº 601 de fecha 19 de junio de 2015 y 170 de fecha 19 de febrero de 2016.

Bigarrenak, bere izenean eta Iraultza Dantza Taldearen ordezkaritzan, IFZ: G20071171 duena, eta helbidea: Jesus Guridi Kalea 9, behea, 20.100 Errenteria.

El segundo, en nombre y representación de Iraultza Dantza Taldea, con C.I.F. nº G20071171, y domicilio en C/ Jesús Guridi 9, bajo, 20.100 Errenteria.

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasun aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako,

Ambas partes se reconocen mutuamente plena capacidad para suscribir el presente convenio, a tal efecto,

AZALTZEN DUTE:

EXPONEN:

I.- Errenteriako "Iraultza Dantza Taldea" kultura

I.- La existencia en Errenteria de la entidad

ERRENTERIAKO UDALA
Kultura



jarduera eta herritarren parte-hartzea sustatzen ditu.

II.- Hauek dira Iraultza Dantza Taldeak Errenterian gauzatzen dituen helburuak:

- Euskal dantzak, tradizioak eta folklorea berreskuratu, mantendu eta zabaltzea.

- Euskal jantziak erakutsi eta berreskuratzea.

III.- Iraultza Dantza Taldeak, Euskal Herriko kultura eta tradizioak berreskuratzeko ahaleginetan, ikerketa-lan handia burutu eta jantzi tradizional asko berregin ditu; halaber, inbertsio ekonomiko handiak egin ditu jantzi zaharrak erosteko, 400 jantzi baino gehiagoko bilduma osatu baitu.

IV.- Iraultza Dantza Taldeak proiektu museografiko bat egin du bere jantzi bilduma erakusteko eta 1971. urteaz geroztik egin duen lanarekin jarraitzeko.

V.- Oarsoaldeko museo eskaintza, nagusiki, etnografikoa denez, Kapitain Etxean kokatuko den Jantziaren Zentroak inguruko kultura eskaintza zabalduko du eta eskualdeko hainbat museo eta zentzoren arteko sinergiak bultzatuko ditu.

VI.- Iraultza Dantza Taldeak proiektu honekin lortu nahi duen helburua da historian zehar erabilitako jantzien aberastasuna ahalik eta hoberen erakustea, erakunde bizi baten bidez, etengabe bilakatzen eta aldatzen ari den, jarduerak antolatzen dituen eta erakargarria den erakunde baten bidez.

VII.- Proiektu honek herriko kultura bizian eragiten du, Errenteria ezagutarazten du eta udalerraren izen ona zabaltzen laguntzen du.

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA
Cultura

cultural "Iraultza Dantza Taldea" favorece la actividad cultural y la participación ciudadana.

II.- Los objetivos que Iraultza Dantza Taldea está desarrollando en Errenteria son los siguientes:

- Recuperar, conservar y divulgar las danzas, tradiciones y folklore vasco.

- Mostrar y recuperar la indumentaria vasca.

III.- Iraultza Dantza Taldea, en su afán de recuperar la cultura y las tradiciones de Euskal Herria, durante años ha realizado un intenso trabajo de investigación y reconstrucción de vestuario tradicional, realizando, asimismo, importantes inversiones económicas para la adquisición de indumentaria antigua, llegando a contar con una colección de más de 400 trajes.

IV.- Iraultza Dantza Taldea ha elaborado un proyecto museográfico para albergar su colección de trajes y desde el que continuar con la labor que lleva realizando desde 1971.

V.- La oferta museística en Oarsoaldea es mayoritariamente de carácter etnográfico, de manera que la aportación del Centro del Traje que estará ubicado en Kapitain Etxea enriquecerá la oferta cultural de la zona y podría favorecer las sinergias entre los diferentes museos y centros de la comarca.

VI.- El objetivo de Iraultza Dantza Taldea con este proyecto es mostrar de la manera más óptima posible la riqueza del vestuario utilizado a lo largo de la historia, por medio de un ente vivo, en continua evolución y cambiante, que genere actividades y resulte atractivo.

VII.- Dicho proyecto repercute en la vida cultural de la Villa, así como en la difusión y buen nombre de la misma.

ERRENTERIAKO UDALA
KULTURA
ZENTROA
*
Iraultza Dantza Taldea



VIII.- Jakina da Iraultza Dantza Taldeak ahalegin handia egiten duela proiektu hori gauzatzeko eta horrek zailtasun ekonomikoak eragiten dizkiola.

IX.- Kultura Saileko Zinegotzi Ordez kariaren Dekretuaren bidez, 2018-05-03koa, erabaki da zuzeneko diru-laguntza nominatiboa Iraultza Dantza Taldeari ematea. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-.

- azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-.

* Azal dutakoaren arabera, Errenteriako Udalak eta Iraultza Dantza Taldeak erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen baldintzak eta konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK:

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 2018-05-03ko dekretuaren bidez emaniko diru-laguntzarekiko. Diru-laguntza horren xedea da Iraultza Dantza Taldea elkartearen proiektua, oro har¹, eta Kapitain Etxean kokatutako proiektu museografikoa, zehazki, finantzatzea.

1 Iraultza Dantza Taldeak, elkarte gisa, hainbat jarduera antolatu ohi ditu urtero: San Juan bezpera-Urdiaingo koplak ekainean, XVI. mendeko jantzien erakusketa irailean (Atlantikaldia), baserritar jantzien erakusketa abenduan, plazako dantzen ikastaroak (13-60 urte bitarteko herritarrentzat)... Iraultza Dantza Taldea Errenteriako beste elkarte batzuekin ere aritzen da lankidetzan: Olereta Ikastolak antolatzen duen Inude eta Artzainen desfilean parte hartzen du; Madalenetan, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsarekin aritzen da elkarlanean; Lau Haizetara Elkarateak antolatu ohi duen Oientzeroren etorreraren desfilean parte hartzen du, etab. Nabarmenezkoa da, bestalde, elkarteak ikerketa eta dokumentazioaren alorrean egiten duen lana (dantza tradizionala, janzkera eta antzinako argazkiak). Horrez gain, informazio-puntu gisa funtzionatzen du elkarteak, euskal jantziei buruzko informazio eta argibide eskaerei erantzunez.

VIII.- Se conocen los esfuerzos de Iraultza Dantza Taldea para llevar a cabo dicho proyecto, y las dificultades económicas generadas por este proyecto.

IX.- Por Decreto del Concejal Delegado del Área de Cultura, de fecha 03-05-2018, se ha acordado conceder subvención directa nominativa a Iraultza Dantza Taldea, en base a lo dispuesto en:

- el artículo 11.1.a) de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015) -en adelante, la Ordenanza-

- el art. 22.2 a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones -en adelante, la Ley-

Que a tenor de lo expuesto, el Ayuntamiento de Errenteria e Iraultza Dantza Taldea acuerdan aprobar el presente convenio, que se regirá de conformidad con las siguientes cláusulas que recogen las condiciones y compromisos de las partes para hacer efectiva la concesión de la subvención.

CLÁUSULAS:

Primera: Objeto del convenio

El objeto del presente convenio es el de establecer los derechos y obligaciones de ambas partes respecto a la subvención concedida por decreto de 03-05-2018, para la financiación del proyecto de la asociación Iraultza Dantza Taldea, en general², y del proyecto museográfico ubicado en



Kapitain Etxea, en particular.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantziarioa

Diru-laguntzaren diru-kopurua 19.150,00 eurokoa izango da aurten², aurrekontuko 7523 partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Erreterriako Udalaren Aurrekontu Orokorrean, 2018. urterako.

Segunda: Presupuesto y financiación

El importe de la subvención queda fijado, este año⁴, en 19.150,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 7523, prevista nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Erreterria para el año 2018.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunear eta 2018-12-31n amaituko da.

Udaletxe honen bokazioa, Jantziaren Zentroaren proiektua sustatzen jarraitzea da.

Tercera: Duración del convenio

El presente convenio entrará en vigor el mismo día de su firma y finalizará el día 31-12-2018.

La vocación de este Ayuntamiento es continuar impulsando este proyecto del Centro del Traje.

Laugarrena: Erreterriako Udalaren konpromisoak

Cuarta: Compromisos del Ayuntamiento de Erreterria

Hitzarmen honi jarraiki, Erreterriako Udalak hartutako konpromisoak honakoak dira:

Los compromisos adquiridos por el Ayuntamiento de Erreterria, en virtud del presente convenio, son los siguientes:

a) Iraultza Dantza Taldeari 19.150,00 euroko diru-laguntza ordainduko zaio, eta era honetan egingo da ordainketa:

a) Abonar a Iraultza Dantza Taldea una subvención por importe de 19.150,00 euros, y de la siguiente forma:


%50, 9.575,00 euro, hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.

50%, 9.575,00 euros, en el plazo de un mes a la firma del presente convenio.

%30, 5.745,00 euro, 2018ko irailan zehar.

30%, 5.745,00 euros, durante el mes de

- 2 La asociación Iraultza Dantza Taldea organiza, cada año, una serie de actividades: víspera de San Juan-coplas de Urdiain en junio, la exposición de trajes del siglo XVI en septiembre (Atlantikaldia), la exposición de trajes de *baseritarra* en diciembre, cursillos de danzas de plaza (para ciudadanos/as de entre 13 y 60 años)... Iraultza Dantza Taldea colabora, asimismo, con otras asociaciones de Erreterria: participa en el desfile de *Inudes* y *Artzainas* organizado por Orereta Ikastola; colabora con la Comparsa de Gigantes y Cabezudos en Madalenas; participa en el desfile de la llegada de Olentzero organizado por la asociación Lau Haizetara, etc. Hay que destacar, además, la labor que realiza la asociación en el campo de la investigación y la documentación (danza tradicional, indumentaria y fotografía antigua). La asociación funciona, asimismo, como punto de información, atendiendo solicitudes de información y consultas relacionadas con el traje vasco.
- 3 Iraultza Dantza Taldeak jasoko duen diru-laguntzaren zati bat -zehazki, 2.000 euro- birjartzeetara bideratuta egongo da. Horrela izan ezean, elkarrekin ez du 2.000 euroko diru-kopuru hori jasoko.
- 4 Una parte de la subvención que recibirá Iraultza Dantza Taldea -2.000 euros para ser exactos- estará destinada a reposiciones. De no ser así, la asociación no recibirá esa cantidad de 2.000 euros.



Handwritten signature



septiembre de 2018.

%20, 3.830,00 euro proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren, betiere Udalak justifikazioa nahikotzat jotzen badu (sail edo azpisaileko teknikaria, Kontu-hartzailea eta dagokion Zinegotzi Delekatua).

20%, 3.830,00 euros, una vez ejecutado el proyecto y tras la presentación de la justificación del mismo, siempre que dicha justificación sea considerada suficiente por el Ayuntamiento (la técnica del área o subárea, la Intervención Municipal y el Concejal Delegado correspondiente).

Diru-kopuru horretan sartuko dira ekintzak eta horiek hedatzeak eragindako gastu guztiak, baita materialari nahiz argi eta soinu tresneriari dagozkionak ere.

El abono de la citada cantidad incluye todos los gastos derivados de las actuaciones, difusión, material y de equipos de iluminación y sonido.

b) Errenteriako Udalak Kapitain Etxea udal eraikinaren erabilera Iraultza Dantza Taldearen esku jarri du, proiektu museografikoaren egoitza izan dadin, honen erabilera ahalbidetzeko 2017/02/28ko erabilpen lagapenaren akordioan jasotako baldintzen arabera.

b) Para albergar dicho proyecto museográfico, el Ayuntamiento de Errenteria ha puesto a disposición de Iraultza Dantza Taldea el uso del edificio municipal de Kapitain Etxea, en las condiciones que se recogen en el correspondiente acuerdo de cesión de uso del inmueble con fecha 28/02/2017.

Bosgarrena: Diru-laguntzaren entitate onuradunak hartutako konpromisoak

Quinta: Compromisos de la entidad beneficiaria de la subvención

Hitzarmen honi jarraiki, diru-laguntzaren entitate onuradunak hartutako konpromisoak honakoak dira:

Los compromisos adquiridos por la entidad beneficiaria de la subvención, en virtud del presente convenio, son los siguientes:

a) Iraultza Dantza Taldeak aipatutako proiektua garatuko du (elkarteari dagokiona, oro har, eta baita Kapitain Etxeko proiektu museografikoa ere), aurkeztutako dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusitako epean gauzatuko da.

a) Desarrollar el mencionado proyecto (tanto el proyecto de la asociación, en general, como el proyecto museográfico ubicado en Kapitain Etxea), a tenor de la documentación presentada, que se adjunta al presente convenio como anexo, y en el plazo previsto al efecto.

b) Programazioko jarduerak burutzea, Jantziaren Zentroa erakunde bizia izan dadin, etengabe aldatzen eta bilakatzen ari den eta erakargarria den erakundea.

b) Mantener la celebración de las actividades correspondientes a la programación, para que el Centro del Traje sea un ente vivo, en constante cambio y evolución, y resulte atractivo.

c) Bere gain hartzea proiektuaren kudeaketa: Zentroaren plangintza, antolamendua, arreta,

c) Asumir la gestión del proyecto: planificación, organización, atención, programación...



programazioa... Proiektu museografikoari dagokionez, jantzien erakusketa iraunkorraz gain, aldi baterako erakusketak (beheko solairuan) hartuko ditu Kapitain Etxeak. Bisita gidatuak eskainiko dira (euskaraz zein gaztelaniaz) eta 8-10 tailer antolatuko dira urtean.

d) Udalarekin adostea eta honi jakinaraztea Jantziaren Zentroaren ordutegia eta sarreren eta programamatutako jardueren prezioa.

e) Kultura Departamentuarekin lankidetzan jardutea urteko kultura programazioa osatzeko eta Udalak deitutako bileretara joatea.

f) Iraultza Dantza Taldeak, Kapitain Etxearen eta Errenteriako plan estrategikoan giltzarri diren beste zenbait eraikin edo/eta kultur-proiekturen (Lekuona, Torrekuia, etab.) arteko loturak landuko ditu, eta elkarlana sustatuko du eraikin horietako kudeatzaileekin.

g) Beharrezko diren udal-baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

h) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Xedea beteko du, proiektua gauzatuko du eta jarduera burutu edo diru-laguntza emateak oinarritzen duen jarrera hartuko du.

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

del Centro. En cuanto al proyecto museográfico de Kapitain Etxea, se ofrecerá la posibilidad de visitar tanto la exposición permanente de trajes como otras exposiciones temporales que se acogerán en la planta baja del Centro. Se ofrecerán visitas guiadas (en euskera y castellano) y se organizarán entre 8 y 10 talleres al año.

d) Dar cuenta y acordar con el Ayuntamiento los horarios de apertura del Centro del Traje, así como el precio de las entradas y de las actividades que se programen.

e) Colaborar con el Departamento de Cultura en la programación cultural anual y estar presente en las reuniones a las que desde el propio Ayuntamiento se le convoque.

f) La asociación Iraultza Dantza Taldea trabajará para promover los vínculos entre Kapitain Etxea y otros edificios/proyectos culturales (Lekuona, Torrekuia, etc.) que se consideran claves en el plan estratégico de Errenteria, buscando la colaboración con las y los gestores de dichos edificios.

g) Solicitar cuantos permisos municipales o de otra índole se requieran.

h) Cumplir todas las obligaciones establecidas para los beneficiarios de subvenciones en el artículo 21 de la Ordenanza y el art. 14 de la Ley y, en especial, las siguientes:

- Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

- Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.



- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu, diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinarazi beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, eta baita tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako kontu-ikuskapena eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskatutako baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da, lau urteko epean zehar.

- i) Jasoriko diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

j) Diru-laguntzaren onuradunak diruz lagundu beharreko 10.440 euroko (BEZ barne) diru-kopurua izango balu ekipamendu-ondasunak hornitzeko edo aholkularitza edo laguntzako enpresa zerbitzuek emateko, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko lituzke, eta hala egin duela jasota utzi beharko luke.

- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano competente, aportando cuanta información sea requerida.

- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación de los fondos percibidos.

- Acreditar (antes de la realización de cada uno de los pagos) que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social.

- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentación, debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control, es decir, en el plazo de cuatro años.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley.

j) En el supuesto de que el beneficiario de la subvención incurriese en gastos subvencionables por importe superior a 10.440 euros (IVA incluido) en suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, deberá solicitar al menos tres ofertas, y dejar constancia de ello.



k) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Diru-laguntzaren entitate onuradunak diru-laguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatzari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin alde zuzenarekin adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda.

k) Cláusulas relativas al uso de los idiomas oficiales: La entidad beneficiaria de la subvención en las comunicaciones llevadas a cabo en las actuaciones objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices:

En lo que respecta a las comunicaciones escritas:

- Paisaje lingüístico:

Los rótulos, avisos, anuncios, tarjetas, publicidad y resto de comunicaciones se realizarán mediante pictogramas.

Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas, priorizando la versión en euskera (posición del texto, mayor tamaño de letra, negrilla). Previamente se consensuarán con el Ayuntamiento.

Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.

- Relación con la Administración: en el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 2/2016, de 7 de abril y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconocen a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.

En lo que respecta a las comunicaciones orales:

Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran comunicarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales.

La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera.

ERRETERIAKO UDALA

Kultura



Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkartek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

l) **Berdintasunerako klausula:** Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

m) **Ingurumenaren alorreko klausula:** Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sortutako hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

Cultura

Cuando las características de la actividad o de las personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.

Los mensajes emitidos mediante megafonía durante los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.

Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vasco parlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.

l) **Cláusula de igualdad:** La entidad beneficiaria de la subvención deberá dar cumplimiento a los principios y obligaciones establecidas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidad de género.

m) **Cláusula de medio ambiente:** La entidad beneficiaria de la subvención, con carácter general, tendrá en cuenta la adopción de criterios ambientales en las siguientes materias: (1) eficiencia y ahorro energéticos, (2) gestión y recogida selectiva de las diferentes fracciones de residuos, además de la prevención en su generación, (3) no generar afecciones a la diversidad local (hábitats naturales, especies y procesos ecológicos), (4) ahorro de recursos naturales (agua, consumo sostenible), (5) recogida adecuada de las aguas residuales generadas, (6) impulsar una movilidad sostenible, y (7) no emisión de ruidos superiores a los topes establecidos en la normativa vigente y garantía de calidad acústica con respecto a la ciudadanía y el

ERRENTERIAKO UDALA

Kultura



AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

Cultura

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, %100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeak inprimatuak.

n) Jarduera eta erabiliko diren hedabide guztietan (irratia, prentsa, kartelak, esku-programak, web orria, sare sozialak, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren lankidetzat, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarria eta "Kultura Kreatiboa" logoa gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan, arestiko esaldiaren tamaina, gutxienez, erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Seigarrena: Diru-laguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa

Errenteriako Udalak, Kultur Ondarea Teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehaztutako helburua bete dela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, urtarrilean, Errenteriako Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzak xede duen proiektuaren garapenaren memoria bat. Bertan, burututako jardueren azalpen memoria bat egingo da, izandako diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordainagirien edo dokumentuen kopia bat.

Gastuak egiaztatuko dira ordainagirien edo

medio ambiente.

En cuanto a la diferente documentación a presentar en el Ayuntamiento en soporte papel, se entregará en papel 100% reciclado, totalmente libre de cloro, e impreso por las dos caras.

n) Hacer constar, en la totalidad de sus actuaciones y en todos los medios de difusión utilizados (radio, prensa, carteles, programas de mano, página web, redes sociales, etc.), la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria en la financiación del proyecto, bajo la frase: "Con la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria", añadiendo a dicha frase el escudo de la Villa y el logo de "Kultura Kreatiboa" en caso de difusión escrita; requisito que se cumplirá tanto si el Ayuntamiento de Errenteria fuera el único colaborador, como en el caso de que compartiera este patrocinio con diferentes colaboradores. En este último caso, la frase antes referida será, cuando menos, de igual tamaño que el de la mayor que se utilizará.

Sexta: Seguimiento y justificación de la subvención

El Ayuntamiento de Errenteria, mediante la técnica de Patrimonio Cultural, llevará a cabo el seguimiento y comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

La entidad beneficiaria de la subvención, en el mes de enero, deberá presentar en el Ayuntamiento de Errenteria una memoria de desarrollo del proyecto objeto de la subvención. En dicha memoria, se hará una exposición valorativa de las actividades llevadas a cabo, incluyendo un balance de los gastos e ingresos habidos, así como copia de las facturas o documentos justificativos de los gastos efectuados.

Los gastos se acreditarán mediante facturas y



merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin finantzatu direnean, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagundutako jardueretan.

Diru-laguntza jasotzen duen entitate hartzaileak, memoriaz gain, aurkeztu beharko du CD bat programaren eta jardueren argazkiekin (argazki bakoitzari zein jarduera edo programa dagokion adierazi beharko da), hala nola hedapenerako erabili diren euskarri guztiak.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako erakunde autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio Udalaren departamentuek edo erakunde autonomoek diru-laguntzetarako egindako deialdien arabera egokitu ahalko litzaiokeen edozein laguntza edo diru-laguntza mota jasotzeari.

Hala eta guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa.

Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

La entidad perceptora de la subvención, además de la memoria, habrá de presentar un CD con fotos del programa y de las actividades (indicando qué actividad o programa corresponde a cada foto), así como todos los soportes utilizados para la difusión.

Séptima: Compatibilidad con otras subvenciones públicas

La subvención regulada por este convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o privados.

Sin embargo, la presente subvención es incompatible con la percepción de otras subvenciones o ayudas provenientes del Ayuntamiento de Errenteria y/o sus organismos autónomos para la misma finalidad, de forma que la entidad beneficiaria renuncia a cualquier tipo de ayuda o subvención que le pudiera corresponder conforme a las convocatorias de subvención que se realicen desde los diferentes departamentos del Ayuntamiento o sus organismos autónomos.

En cualquier caso, el importe de las ayudas concedidas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente, supere el coste del objeto de la subvención.



Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Errenteriako Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagundutako jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emandako zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatiak ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, ^{betiere} diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Errenteriako Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan hartutako baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izandako ez-betetzeak mailakatzeko, proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikitako arrazoiak edo behar bezala justifikaturiko bestelako arrazoiak direla-eta, bi aldeek adostu ahal

Octava: Modificación de las condiciones del convenio

La entidad beneficiaria de la subvención podrá solicitar al Ayuntamiento de Errenteria, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones del presente convenio que supongan ampliación de plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando tengan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El Ayuntamiento de Errenteria podrá modificar el presente convenio, previa comunicación a la persona beneficiaria y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tomadas en cuenta para la aprobación del presente convenio impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido, y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

Novena: Incumplimiento y reintegro de la subvención

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones de la entidad beneficiaria de la subvención supondrá la revisión o resolución de la misma, y en su caso, la disminución o devolución de la cantidad otorgada, en los términos previstos en los artículos 23 y 37 de la Ordenanza y 37 y siguientes de la Ley, sin perjuicio de las responsabilidades que se pudieran exigir.

Para graduar los incumplimientos, se utilizará el criterio de proporcionalidad.

Cuando no se pudiera o no interesara proseguir el desarrollo del trabajo por causas inherentes a la viabilidad o naturaleza del proyecto u otras debidamente justificadas, se podrá resolver o



izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

interrumpir la subvención de mutuo acuerdo.

Hamargarrena: Datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

Décima: Protección de datos personales

En el supuesto de que se lleve a cabo tratamiento de datos de carácter personal, ambas partes acuerdan dar cumplimiento a lo dispuesto por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Datos de Carácter Personal.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuan edo diruz, lagundutako jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Undécima: Prevención de riesgos laborales

La entidad beneficiaria de la subvención, en el desarrollo del proyecto o actividades subvencionadas, cumplirá con la normativa vigente en materia de prevención de riesgos laborales, Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, y normativa de desarrollo.

Hamabigarrena: Araubide Juridikoa


Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik honen interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko-administratiboak ezarritakoaren arabera.

Duodécima: Régimen Jurídico

El presente convenio es de carácter administrativo, por lo que su interpretación y desarrollo se regirá por lo establecido en el ordenamiento jurídico-administrativo.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan, administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, bereziki, Errenteriako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO), azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa, non onartzen den azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuaren arauak aplikatuko dira.

En todos los aspectos que no hayan sido establecidos en el presente convenio, se aplicará la legislación vigente en el ámbito administrativo y, en particular, lo establecido en la ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015), en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. Subsidiariamente, se aplicarán las normas de derecho privado.



Handwritten signature



Hamahirugarrena: Eskumeneko jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek HITZARMEN hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den tokian eta egunean.

**IRAULTZA DANTZA TALDEKO PRESIDENTEA /
EL PRESIDENTE DE IRAULTZA DANTZA TALDEA**

Stua. / Fdo.: Ramón García Zabalegui

Decimotercera: Jurisdicción competente

Serán competentes para resolver los litigios que pudieran surgir entre las partes, los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, de forma que ambas partes aceptan la competencia territorial de los mismos.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, las partes intervinientes firman el presente CONVENIO, por duplicado y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**KULTURA SAILEKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA / EL CONCEJAL DELEGADO DEL
ÁREA DE CULTURA**

Stua. / Fdo.: Ion Collar Rioseco

